


## ELEKTROLITOAK

Elektrolitoak, uretan disolbatzean, disoluzio *elektrizitate-eroaleak* sortzen dituzten substantziak dira, eta hori disoluzioan ioiak egoteagatik gertatzen da.

## MOTAK


### GATZA

• **Elektrolito ionikoak** egoera solidoan *ioi*z eratuta daudenak dira. Horiek, uretan disolbatzean, ioitan disoziatzen dira. Horixe da, hain zuzen, konposatu ionikoen kasua. Adibidez:




### AZIDO ETA BASEAK

• **Elektrolito molekularrak** *molekulaz* osatuta daudenak dira, eta beraz ez dute ioirik, baina ur-disoluzioan eraten dituzte; kasu horretan, ionizatu egiten direla esaten dugu. Horixe da azidoekin gertatzen dena. Adibidez:



• **Elektrolito sendoak** *erabat edo ia-ia erabat ionizatzen direnak* dira. Talde hori gatz ionikoek, azido sendoek eta base sendoek osatzen dute. Adibidez:



• **Elektrolito ahulak** *partzialki ionizatzen direnak* dira. Talde hori azido eta base ahulek osatzen dute. Adibidez:

